**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2024SDBD0042 **Erreg. data/**Fecha reg**:** **Erreg. zk** ./ Nº registro**:** 000000
**Gaia/**Asunto**:** 5.2 DIRULAGUNTZA LERROA: KIROL ENTITATEAK. EZOHIKO JARDUERAK / Línea de Subvención 5.2: Entidades Deportivas. Actividades Extraordinarias
**Eskatzailea/**Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)/**DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA

## OINARRIAK

### 1- Dirulaguntzaren xedea.

Lerro honen xedea ezohiko kirol-jardueren programak kofinantzatzeko eta bultzatzeko dirulaguntzak ematea da, adibidez, eta ez du erlazio itxia: Errenterian antolatutako kirol proba eta txapelketak (federatuak, eskolakoak edo amateurrak) antolatu eta egitea, Errenteriako kirol jarduera dinamizatzeko (lehiaketa ofizial arruntak, Errenteriako auzoetan eta Zaindariaren jaietan egindako kirol-jarduerak salbu), kluben urteurrenak, kluben bidaiak Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo ohikoak ez diren lehiaketa ofizialetara, fitxa federatua indarrean duten banakako kirolarientzako laguntzak, banakako lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik (eskola-fitxa duten kirolariak, lehiaketa ez-ofizialetarako laguntzak eta taldekirolen lehiaketa ofizialetarako laguntzak kanpo geratzen dira), 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean egindakoak eta helburuak Departamentuaren helburuekin bat badatoz.

Ez dira onartuko ohiko jarduerei buruzko dirulaguntza eskaerak, dirulaguntza lerro propioa baitute.

Inola ere ez dira diruz laguntzeko moduko programatzat hartuko honako jarduera edo antzeko hauekin zerikusia duten dirulaguntzak: uso-tiroketa edo bestelako espezieena, hiltzen duten ehiza eta arrantza lehiaketak, idi, ahari edo bestelakoen demak, etab.

## BASES

### 1- Objeto de la subvención.

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades deportivas extraordinarias, como por ejemplo y sin que suponga una relación cerrada: organización y realización de pruebas y torneos deportivos organizados en Errenteria (de carácter federado, escolar o amateur) que supongan una dinamización de la actividad deportiva de Errenteria (excluidas las competiciones oficiales ordinarias, actividades deportivas realizadas en las Fiestas Populares de los barrios de Errenteria y en las Fiestas Patronales), aniversarios de clubes, viajes de clubes a competiciones oficiales no ordinarias fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ayudas a deportistas individuales con ficha federada en vigor, por participaciones en competiciones oficiales de carácter individual (quedando excluidos, por tanto, deportistas con ficha escolar, ayudas a competiciones no oficiales y ayudas a competiciones oficiales de deportes de equipo), realizadas entre el 1 de septiembre de 2024 y el 31 de agosto de 2025 y cuyos fines sean acordes con los objetivos del Departamento de Deportes del Ayuntamiento.

No se admitirán las solicitudes de subvención relativas a actividades ordinarias, toda vez que disponen de su propia línea de subvención.

En ningún caso tendrán consideración de programas subvencionables las subvenciones relacionadas con las siguientes actividades o similares: tiradas a pichón u otras especies, concursos de caza y de pesca con muerte, pruebas de bueyes, carneros u otros,...

ESKU633a2721-4a19-425a-b3a3-593a14d92bb9

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.**

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Kirol jarduerak kofinantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2025eko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da:

- 1.1530.481.03.341.10: Kirol Entitateak: Ezohiko Jarduerak. Klubak.

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 29.000,00.-eurokoa da.

Ondoren, egoki den kreditu aldaketaren bitartez partida horren kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, emakida ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotean baldintzapean baitago. Kreditu hori dialdihau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

2025eko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean harturik, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin harturik ere.

**2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

En base a la norma municipal de ejecución presupuestaria, esta convocatoria está siendo tramitada anticipadamente; es decir, en un ejercicio presupuestario anterior a la de su resolución y ejecución del gasto.

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de actividades deportivas irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2025:

- 1.1530.481.03.341.10: Entidades Deportivas: Actividades Extraordinarias. Clubes.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 29.000,00.- euros.

Si dicha partida posteriormente fuese ampliada en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de la convocatoria.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

ESKU633a2721-4a19-425a-b3a3-593a14d92bb9

**3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.**

Oro har, dirulaguntza eskatu ahal izango dute Errenterian erroldatuta dauden pertsona fisikoak eta egoitza soziala Errenterian duten eta dirua irabaztea xede ez duten erakunde juridiko pribatuek, betiere programarekin zerikusirik duten jarduerak egiten badituzte. Salbuespena eginda, parte-hartu ahal izango dute Errenteriatik kanpo errotuta dauden pertsonek eta erakundeek, baldin eta beren jardueraren zati nabarmena Errenterian burutzen badute edo jarduerari udalerriarentzat interesgarria irizten bazaio.

Irabazi-asmorik gabeko entitatetzat hartuko dira elkartearen helburuekin bat datozen jarduerak burutu eta etekinak elkarteak lortu nahi dituen helburuetan inbertitzen dutena.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek, eskabidearekin batera, Errenteriako Udalak 2025. urtean dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorretako seigarren oinarrian ezarritako dokumentazioaz gain, elkarte edo erakunde eskatzailearen estatutuak (Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen erregistro orokorrean inskribatuta ez badaude), baldin eta aurretik aurkeztu ez badira, edo oinarri espezifiko hauetan ezarritako balorazio-irizpideei dagokienez azpineurtu beharreko proiektu, jarduera edo programaren oinarri-justifikazioren bat edo aldaketaren bat izan badute.

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

**3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Con carácter general podrán optar a las subvenciones las personas físicas que estén empadronadas en Errenteria o entidades jurídicas privadas sin ánimo de lucro que tengan su domicilio social en Errenteria y realicen actividades relacionadas con el programa. Excepcionalmente podrán acceder las entidades o personas radicadas fuera de Errenteria cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Se consideran entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la asociación y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación.

Documentación a presentar con la solicitud:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025, los estatutos de la asociación o entidad solicitante (si no se encuentran inscritos en el registro general de asociaciones del País Vasco), si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación y justificación soporte del proyecto, actividad o programa a subvencionar relativa a los criterios de valoración establecidos en estas bases específicas.

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria.

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

ESKU633a2721-4a19-425a-b3a3-593a14d92bb9

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea.**

Dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2025eko abuztuaren 31n.

**5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.**

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatuko da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, 2. puntuan adierazitako mugarekin.

**Genero Oreka**

Generoaren aldetik oreka dago (%40-60) … 10 puntu

Gehienbat gizonek parte hartzen dute (>%61) ……..
……..…......……......….......……......…................... 0 puntu

Gehienbat emakumeek parte hartzen dute (>%61)
……....…......……......…......……......…….............. 20 puntu

**Programan parte hartzen duten pertsonen kopurua**

20 parte-hartzailetik behera …...................... 5 puntu

21 eta 79 parte-hartzaile bitarte …................ 10 puntu

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

**4.- Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 31 de agosto de 2025.

**5.- Criterios de valoración de las solicitudes.**

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva. Por lo tanto, en todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite indicado en el punto 2.

**Equilibrio de Género**

Hay equilibrio de Género (40-60%) …........ 10 puntos

Participan mayoritariamente hombres (>61%) ……..
……..…......……......……......……......…................ 0 puntos

Participan mayoritariamente mujeres (>61%) ……..
……..…......……......……......……......…............. 20 puntos

**Número de personas participantes en el programa**

Menos de 20 participantes …...................... 5 puntos

De 21 a 79 participantes …..............…......10 puntos

ESKU633a2721-4a19-425a-b3a3-593a14d92bb9

80 eta 120 parte-hartzaile bitarte. …............. 15 puntu

121 parte-hartzailetik gora …...................... 20 puntu

**Programak izan duen eragina (eragina komunika-bideetan, sare sozialak, …. )**

Inpaktu mediatiko handia .................….. 15 puntu arte

Inpaktu mediatiko ertaina .....…...…... 5 puntu arte

**Programaren kirol maila**

Toki / Lurralde mailan …................................ 5 puntu

Erkidego / Estatu mailan.............................. 10 puntu

Nazioarte mailan …...................................... 15 puntu

**Aurrekontuaren emaitza negatiboa**

3.000,00.- eurotik beherako aurrekontu emaitza negatiboa ..............…………………….......... 2 puntu

3.001,00.- eta 6.000,00.-euro bitarteko aurrekontu emaitza negatiboa ...................................... 5 puntu

6.001,00.- eta 12.000,00.-euro bitarteko aurrekontu emaitza negatiboa ...................................... 10 puntu

12.000,01.- eurotik gorako aurrekontu emaitza negatiboa .................................................. 20 puntu

**Hizkuntza ofizialak erabiltzea**

Egitaraua euskaraz soilik egiten bada .........… 5 puntu

**6.- Dirulaguntza ordaintzea.**

Dirulaguntza diru kopurua era honetan ordainduko da:

%100 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin eta egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

De 80 a 120 participantes …......................15 puntos

Más de 121 participantes …...................... 20 puntos

**Impacto mediático del programa (presencia en medios de comunicación, redes sociales, ...)**

Alto Impacto …...........................…..... hasta 15 puntos

Impacto Medio …........................... hasta 5 puntos

**Nivel Deportivo del Programa**

Nivel Local / Provincial …………….......... 5 puntos

Nivel Autonómica / Estatal ........……….... 10 puntos

Nivel Internacional …...………............ 15 puntos

**Resultado presupuestario Negativo**

Resultado presupuestario negativo inferior a 3.000,00.-euros ....….....…...…………... 2 puntos

Resultado presupuestario negativo entre 3.001,00.- y 6.000,00.-euros ....….....…...…………... 5 puntos

Resultado presupuestario negativo entre 6.001,00.- y 12.000,00.-euros ....…........……….….... 10 puntos

Resultado presupuestario negativo superior a 12.000,01.-euros ....…......…...………… 20 puntos

**Uso de las lenguas oficiales**

Si el programa se desarrolla exclusivamente en euskara ………………………………….... 5 puntos

**6.- Abono de la subvención.**

El importe de subvención será abonado de la siguiente forma:

100% tras la resolución de asignación de subvenciones y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado y tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

ESKU633a2721-4a19-425a-b3a3-593a14d92bb9

**7.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Dirulaguntzaren ordainketa, diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hau aurkezteko epe muga izango da:2025eko urriaren 30a.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Diruz lagundutako programaren edo jardueraren dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoak.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2025 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

Errenteria, sinaduran agertzen den datan

**7.- Justificación de la subvención.**

El pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 30 de octubre de 2025.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual del programa o actividad subvencionado.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.

Errenteria, a la fecha de la firma

Kirolak Departamentuko Arduradun Teknikoa / El Responsable Técnico del Departamento de Deportes

Stua./Fdo.: Luis Peña

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024SDBD0042-OINARRIAK DIRULAGUNTZAK/BASES SUBVENCIONES |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**KP PEÑA, Luis**
**Kiroletako arduraduna**
**Data:** 2024/12/23 08:26:01